

Manel Vilanovaren hitzaldia

Xarxa Teatre konpainiaren zuzendari eta sortzailea, eta Fiestacultura aldizkariaren argitaratzailea.

i

“XARXA TEATRE: Antzerkia kudeatzeko esperientzia, ekimen pribatutik jasoa”

Eskerrik asko, atsegina da niretzat hemen zuekin egoteko aukera izatea. Pentsatzen dut honezkero denok kokatuko ninduzuela; Xarxa Teatre konpainian nago, baita Fiestacultura aldizkarian ere; hala ere, niri gustatuko litzaidake jakitea ea nolako ikusleak ditudan, sentitzen dut, baina ez ditut asko ezagutzen. Jakin nahi nuke ea erakunderen batean lan egiten duzuen, kudeaketa lanik egiten duzuen, edo erakunde pribatu batean lanean zaudeten. Axola ez bazaizue, ezeri ekin aurretik, altxatu eskua... Esate baterako, nork egiten du lan erakunde batean, kudeaketa lanetan udaletxeren batean? Beno! Ia erdiak. Hainbanatuta gaude. Gainerakoak enpresa pribatuetakoak zaretela iruditzen zait; ez dakit nire esperientzia baliagarria izango zaizuen ala ez.

Gu 1982. urtean hasi ginen kale antzerkia egiten, eta talde gehienek antzera, Odin Teatretan eragina izan genuen. Dena den, ez ginen inoiz Hirugarren Antzerkiarekin nahastu; hau da, ez ginen sekula talde horrekin lanean aritu. Valentzian ikastaro pare bat egin genuen, eta handik sortu zen orain adieraziko dizuedana. Xarxa Teatrek zortea izan du; Europan oso ondo saldu diren hainbat ikuskizun antolatu ditu. Ezohiko bide bat hartu genuen, formatu handikoa, eta hori guztia posible izan da gure abiapuntua, batez ere gure enpresa abiapuntua, konpainia gehienek bestelakoa izan delako. Azalduko dizuet, ez dakit balioko zaizuen ala ez, baina esan nahi dut gure kasuan behintzat oso baliagarria izan dela, eta horri esker asko hazi garela, gure antolaketa gaitasunean eta ekintza artistikoan oinarriturik. Barkamena eskatu behar dut publikoki, Artekaleren antolatzaileek nire konpainiako jende gehiago etor zedin nahi zuelako kudeaketa perspektiba desberdinen ikuspegitik hitz egin ahal izateko, baina zorionez edo zoritxarrez, bihar lan garrantzitsua dugu Eltxen. Ikuskizun berria eskainiko dugu han, eta nazioarteko programatzaile asko joango dira hura ikustera. Berez, nik ez nuen hemen egon beharko, Artekaleko jendeak, ordea, oso ondo konbentzitu nau, eta lagunek, batzuetan, ezinezkoak diren gauzak eskatzen dizkizute.

▪ Antzerki enpresaren tipologia

Ezer baino lehen, argitu nahi dut zer-nolako enpresari buruz ari garen. Gaur egun, enpresa mota bi daude. Alde batetik, antzerki publikoaren enpresa dago; hots, defizita baldin badago, erakundeak betetzen du. Eta beste bestetik, enpresa pribatua dago, sozietate anonimoak, mugatuak, autonomoak... eta agian beste formularen bat egongo da. Nik enpresa pribatu baten kudeaketaz hitz egingo dut. Esparru honetan, beste bereizketa bat ere egin genezake Xarxa Teatre non kokatzen den jakiteko. Badira erakundeen diru laguntza handiak jasotzen dituzten enpresa pribatuak, eta bestalde, badira oso diru laguntza txikiak jasotzen dituztenak ere. Lehenengo taldekoek —hau da, erakundeen diru laguntza handia jasotzen dutenak— antzerki zentro dramatiko moduan funtzionatzen dute, eta horretarako, oso laguntza handia dute. Bigarren taldekoek, eta gu hor gaude, erakundeen diru laguntza txikia jasotzen dugu, gure urteko aurrekontuaren ehuneko hamarrekoa baino txikiagoa. Hori dela eta, gainerako ehuneko laurogeita hamarra sortu behar du gure konpainiak, bere proiektuak burutu ahal izateko.

▪ Erakunde politika

Erakunde politikaz hitz egiterakoan, hiru eredu daude gaur egun. Alde batetik, amerikar eredua deituko genukeena dago; horretan, erakundeek ez dute kulturarako diru laguntzarik ematen, dena merkatuko legeen mende dago. Unibertsitateak izan ezik, dena merkatu librean mugitzen da, eta ez da inolako laguntzarik ematen. Normalean, arrakasta handiko ikuskizunak sortzen dira, produkzio zentro handietan, eta horrez gain, antzerki amateurra edo bizi iraupenekoa baino ez dago.

Eredu horren aurrean, sobietar eredua dago, edo hobeto esanda, zegoen. Eredu horretan, estatuak bere gain hartzen ditu gastu guztiak. Horrela funtzionatzeko, funtzionario pilo bat behar da, edo behar zen. Bakoitza bere eskubideekin. Ekialdetik etorritako zuzendari batek, egun batean, zera esan zidan; esate baterako, ileordeak egiten dituenak bere lana bukatzeke bazuen eta denbora gehiago behar bazuen bere ukituak egiteko, ez zela ikuskizuna hasten, eta kito. Espainiako estatuaren ikuspuntutik begiraturaz gero, formula hori aplikaezina da. Lluís Pascual, Antzeppen Nazionaleko Zentrorra iritsi zenean, horrelako antzerki zentro bat eratzen saiatu zen, eta funtzioen eta erantzukizunen banaketa orokorra egin zuen. Eszenatokiaren gainean kaxa bat

bazegoen eta konpainiako zuzendariak eszenatokiko teknikari bati kentzen lagun ziezaion eskatzen bazion, teknikariak ezetz esaten zion, hori zamalanetako langileen funtzioa zelako. Zamalanetako langileren bat bilatzen zenuen kaxa kentzen lagun ziezazun, eta horrek ere ezetz esaten zizun, berari zamalanetako arduradunak agindu behar ziolako eta... Planifikazio handi horrek, ordea, neurritz kanpoko gastuak ditu, eta diru hori arte sormenerako edo birak egiteko erabiliko den dirutik kentzen da. Sobietar funtzionarioen sistema gure gizarte kapitalistaren antzerkiari aplikatzeak izugarri garestitzen du produktua, eta zalantzazkoa da horrek kalitate artistikoa hobetzen duen.

Azkenik, europar eredua dago, gutxi gorabehera 1968an sortu zena. Gure eredua izango litzateke hori. Frantziako maiatzeko iraultzaren ondorioz sortu zen. Iraultza intelektuala izan zen, eta eragina izan zuen herri klaseetan. Hartatik guztitik hainbat ondorio atera ziren; besteak beste, estatuak ezin dituela bere gain hartu antzerki produkzio guzti-guztiak, baina bai laguntza portzentaje bat eman diezaikeela konpainiei eta sortzaileei. Hortik sortu zen laneko *intermitance* delakoa; badakizue, Frantziako aktoreek, zuzendariak, idazkariak eta teknikariak jasotzen duten langabezia sorospena. Andaluzian martxan dagoen nekazaritza langabeziaren antzekoa. Hau da, urtean 60 emanaldi inguru kotizatzen badituzu, beste urtebeteko gizarte segurantzatik kobratzeko eskubidea duzu. Langabezia "artistiko" hau ez da inoiz Espainiako estatuan ezarri. Hori horrela dela, beste eragin bat heldu zitzaigun Frantziatik. Kulturak ez du zertan aberatsen gauza eskusiboa izan, ez du zertan bereizketa ekonomikoaren seinale izan. Kulturak herritar orok erraz eskuratzeko modukoa izan beharko luke, eta horretarako, erakundeek dirua inbertitu behar dute. Zentro nazionalak sortzea ekarri zuen horrek, eta ondoren, Jack Langek Paristik Frantziako inguru guztietara eraman zuen. Politika hori ekimen pribatuei diru laguntzak emanez osatzen zen, ekimen pribatua lehiakorragoa izan zedin eta antzerki zentro nazionalak heldu ezin ziren lekuetaraino hel zedin.

▪ Diru laguntza eta kontratazioa

Hori da Espainian ezarritako eredua, betiere, *intermitance* delako hori aparte utzirik, nola ez. Hortaz, jakin behar dugu konpainiok diru laguntza txiki bat jasotzen badugu, azken batean, administrazioaren erakunde politika errealitate bihurtzen ari gara; izan ere, erakunde politikak ekimen pribatuetarako planteamendu hori izango ez

balu, ez genuke inolako diru laguntzarik jasotzeko eskubiderik izango. Begi-bistakoa da erakundearentzat lan bat egiten dugula, eta erakundeak "laguntza" baten bidez ordaintzen digula. Nik gero eta gorroto handiagoa diot diru laguntza deritzon horri. Ez zait hitz hori gustatzen, zentzu peioratiboa duelako. Erakundeentzat lan egiten dugula eta haien kultura programa garatzen ari garela onartzen badugu, nik ez dakit zein desberdintasun dagoen errepideak egiten dituen enpresa baten edo bere kultur politika burutzen duen enpresa baten artean. Biek beren lana betetzen dute. Eta inori ez zaio bururatzen esatea, adibidez, Construcciones y Contratas enpresa diru laguntzak jasotzen dituen enpresa bat dela. Eta ez da lotsagarritzat jotzen ezta enpresa hori ekonomikoki errentagarria izatea ere. Dena den, antzerki zentroek ezin dutenez dirurik irabazi, suposatzen da antzerki konpainiek ere ezin dutela irabazi. Urte bukaeran Ogasunari dirua itzultzen dion kudeatzaile publikoa kudeatzaile txarra da. Enpresa publikoak bere zenbakiak koadratu behar ditu, baina enpresa pribatuok, ostera, urte bukaeran soberakina lortzen ez badugu, urtean-urtean ekonomikoki ahuldu egingo gara seguru. Gure funtzionamendu moduak, gastuak estali ez ezik, konpainiaren hazkundera bermatuko duen superabita ere lorrarazi behar digu. Ezin dugu funtzionatu hutseko superabita lortzea beste helbururik ez duen antzerki zentro nazionalek legez. Guk superabita izan behar dugu, bereziki hazten jarraitzeko, lehiakorragoak izateko eta, jakina, gehiago kobratzeko eta hobeto bizitzeko.

▪ Zenbakiaren kontua

Badago beste kontu bat ere erakundeek antzerkiari egiten dizkieten diru laguntzei buruzkoa, zalantzan jartzen dudana: lan bat baloratzea, egiten den emanaldi kopuruaren arabera. Jarraitu beharreko adibidea zinemaren munduarena da. Lehen, ematen ziren emanaldien kopuruaren arabera baloratzen zen. Hau da, zenbat eta emanaldi gehiago, orduan eta diru laguntza handiagoa. Horrek zaletasuna handitzea ekarri zuen. Zinema aretoak zuzentzen zituzten enpresek goizeko emanaldi kopuru handia eskaintzen zuten, eta horietara ez zen ikusle bat ere joaten. Beren gain bete-bete hartuta zeukaten ikuslegorik eza. Hau zen axola zitzaien gauza bakarra: ematen zuten emanaldi kopurua, eta horrekin zuzendari edo produktore jakin batek erakundearen diru laguntza bermatzen zuen. Zinemaren munduak kontra egin zien halako praktikei. Horretarako, beldurra galdu behar izan zuten; izan ere, zinemaren merituek errekonozitzeko txarteldegiko diru sarrerak erabiliz gero, berriro nagusituko zen zinema arrunta eta atzerakoa. Proposamen berriaren arabera, diru sarrerak,

kalitatea edo sariak izango ziren aintzat hartu beharreko merituak. Hala ere, antzerkian, emanaldi kopuruaren arabera baloratzen zaigu. Antzokia hutsik badago, ez dago kezkatu beharrik; kontuan hartzen den bakarra txarteldegia zabaltzea da. Gainera, oso iritzi lerdoak entzun izan dira; besteak beste, kudeaketa ona egiten dakiten konpainiek, denboraldiak emaitza kontu positiboaz amaituz gero, ez luketela erakundeen diru laguntzarik jaso beharko. Gaur egun, zinema baloratzen den moduz bestela baloratzen da antzerkia. INAEMek 30 emanaldi egin ditzaten eskatzen die konpainiei, eta emanaldi horien %40 beren autonomia erkidegotik kanpo egin behar dute. Sorturiko diru sarrerak ez dira kontuan hartzen. Ederki dakizuenez, antzerki talde askok 16 emanaldi egiten dituzte astean: goizez eta arratsalde, astelehenetik ostegunera, eta hirukoitza asteburuan. Hurrengo astelehenean beste antzoki batera joaten dira, Madrilera edo Bartzelonara, eta gainerako 14 emanaldiak egiten dituzte, eta horrekin, beren produkzioa justifikatzen dute. Nire ustez, hori bidegabekeria ez ezik, erakundeen diru laguntzari iruzurra egitea ere bada; izan ere, beren merkatua zabaltzeko aukera duten konpainiak bultzatu beharrean, beste konpainia batzuen errakitismoa sustatzen ari gara. Gaur goizean, hemen, oso gertaera sintomatikoa aitatu da: zenbait talde txikik emanaldi gehiago egiten dituzte Markeliñek edo formatu handiko beste talde batzuek baino. Esan nahi du horrek arestian aipatutako konpainiaren gainetik daudela? Horrenbestez, konpainia batek kalean antzezten duenean, ez da emanaldi kopurua baloratu behar dena. Sortutako diru sarrerak hartu beharko dira kontuan, baita gizarte segurantzari egindako kotizazio kopurua eta kalitate artistikoa ere. Bistan denez, beste pertsona batzuek esango dutenaz jabetu behar dugu: esperimintatzen ari direla eta beren produktua ez dela ondo saltzen. Hortaz, ezin da baremo horien bidez neurtu. Dena den, guztiz konbentziturata nago leku gehiagotara eta ikus-entzule gehiagorengana heltzea lortzen duten konpainiei esker soilik garatuko dela antzerkia.

Enpresa planteamendu hauek guztiak kontuan hartuta, bistakoa da gure erreferentzia ez dela inoiz antzeppen nazionalako zentro bat izan. Gure enpresa erreferentzia gure lurraldean axuleiua egiten dituzten enpresak dira. Hala da. Haien funtzionamendua ikasi behar izan genuen. Bai, haiek, garai batean nekazariak izanik, enpresa handiak sortzen jakin izan dute, eta guk, antzerki enpresa garen aldetik, haien enpresa ibilbideari jarraitu ahal izan genion. Hori dela-eta, Espainiako antzerki konpainia askok ez bezala funtzionatzen dugu.

Antzerkiak, gainera, desberdintasun bat du, beste arteetatik bereizten duena. Artista plastiko batek gogoko duen artea sor dezake, nahiz eta bere etxean goseak egon; film baten zuzendariak produktu bat egin dezake, eta lata batean gorde, erakusteko une aproposa heldu arte. Hala ere, antzerkian, bi esperientzia horiek ez dute balio. Guk pertsonekin egiten dugu lan, eta horiek, gainera, jan nahi izaten dute, eta haien familiek ere bai; alegia, hilaren amaieran, soldata bat behar dute. Egoera zail batean bizi gara: inork ez zaitu kontratatzen aldeztatik aurretik ikusi ez bazaitu, eta sei hilabete itxaron behar duzu lana muntatzen duzunik norbaitek kontratatzen zaituen arte. Zertaz bizi gara zuzendariak, aktoreak eta gainerakoek denbora horretan? Gure diru sarrera guztiak gure produktuen salmentatik atera behar dira. Ez gara artista plastikoak, ezta zinemako artistak ere. Ezin dugu gure produktua gorde eta merkatua aldekoa izan arte itxaron. Berehalaxe saldu beharra dago, edo dirurik ezaren ondorioz, konpainiako kide guztiak galtzeko arriskua dugu.

▪ **Xarxa Teatre konpainia, ezohizko esperientzia bat**

1.- Kultura-Elkartea (1983-1985)

2.- Ondasun-Erkidegoa (1985-1993)

3.- Sozietate Mugatua (1994-2006)

Xarxa Teatre konpainia 1982an hasi zen jardunean. Orduan ez zegoen enpresarik, eta 1985era arte, kultura elkartea izan ginen. Gauza jakin batzuk eskatu zizkiguten arte, eta enpresa egitura behar genuela konturatu ginen. Ni artista naiz. Nik ez nekien ezer zenbakiez. Martxan ikasi dut. Hasierako kultura elkartea ondasun erkidego bihurtu genuen eta horrela jarraitu genuen 1993ra arte. Urte hartan, proposamen interesgarri bat egin ziguten, bai ikuspegi artistikotik, bai ikuspegi ekonomikotik: Mantxako kanalaren inauguraziorako ikuskizun bat antolatzea, aurrekontu handikoa. Beldurtu egin ginen. Ekonomista bat kontratatu genuen produkzioaz ardura zedin. Lehenengo aldiz zenbaki pilo bat genuen mahai gainean, eta ez genuen hamaika zorrekin amaitu nahi... Diru asko izateak beste hainbeste galarazi ahal izango zigun. Kontratatu genuen kudeatzaileak esan zigun maila horretan mugituz gero ezinezkoa zela ondasun erkidegoaren egiturari eustea, eta, galerarik izanez gero, erkidegoko kideei zegozkiela, ez enpresari. 1994an, sozietate mugatua

eratu genuen; beharbada, hobe izango zitekeen sozietate anonimoa egitea, enpresa desegiteko erraztasun gehiago ematen dizkielako bazkideei, aldaketak egiteko aukera gehiago. Baina, sozietate mugatua sortu genuen eta horrela jarraitzen dugu oraindik. Orduetik aurrera, Xarxa Teatreraren egitura osatzen joan ginen. Xarxa merkataritza marka izango zen, enpresaz gain, eta arrazoi fiskalak direla kausa, ondasun erkidegoari eutsi genion, baina beste izen batekin: Velam OE izenarekin. Merkataritza enpresa baten likidazioak Ogasunarekiko zor batzuk sorrarazten ditu, eta ondasun erkidegoaren jarduerari eutsiz, ihes egingo genien zor horiei. Likidazioa eginez gero, lokalak, furgonetak, azpiegiturak eta abarrek Ogasunean kotizatu behar zuten. Hasiera batean, ez genekien zertarako balioko zuen OE batek, baina denboraren poderioz, erabilgarritasuna eman diogu. Proiektuak eta management direlakoak egiten ditu, liburuak argitaratzen ditu...

Hain zuzen ere, gure argitaletxe jarduera hasiberria dela-eta, diputatu probintzial batek kultur elkartearen erantzukizuna iradoki zigun, Diputazioaren diru laguntza jaso ahal izateko, eta liburuak, CDak, DVDak eta aldizkariak argitaratzeko. Fiestacultura aldizkaria argitaratzeko diru laguntza bat eskatu genuen, eta eskatutako agiri guztiak tramitatu eta BEZaren galeraren ostean —izan ere, BEZdun fakturekin justifikatzen genuen, eta Diputazioak ez zizkigun BEZa ordaintzen—, konturatu ginen jarduerarako 20000 pezeta baino ez zirela geratzen. Hortaz, hura izan zen Asociación Cultural Àgora Teatralek diru laguntza eskatu zuen lehenengo eta azken aldia. Elkarteari eutsi diogu, eta haren jarduera batzuei. Dena den, ez du dirurik, ez dago diru sarrerarik, eta SMk hartzen ditu gastuak bere gain. Ez dugu berriro aintzat hartu kultur elkartearen bitartez diru laguntza bat eskatzeko aukera.

▪ Biran dauden ikuskizunak / Gertaera handiak

Xarxa Teatre SMk bi eremu artistiko irekita ditu: alde batetik, zirkulazioan dauden ikuskizunak, eta bestetik, gertaerak. Eta bi merkataritza marka ditu: Xarxa Teatre eta Volantins. Hori dela-eta, formatu txikiko eta formatu handiko ikuskizunak eskaintzen ditugu. Eta primeran atera zaigu. Emanaldi kopurua txikitu bada ere, diru sarrerak handitu egin dira. Irmo eutsi diogu ordainsaririk gabeko jardueretan parte ez hartzeari. Esaterako, ez dugu antzezten ordaintzen ez digun azoka edo jaialdi batean, promozio handia agindu arren edo alde zuzenetik sari bat bermatu arren. Gure lana interesatzen bazaie, poz-pozik antzeztuko dugu, baina ez dugu deskonturik onartzen.

Beste konpainiak dohainik joan daitezke; gu, ordea, ordaintzen badigute joango gara. Horrek egoera bitxiak sortu ditu; adibidez, Bilboko kasua. 250.000 pezeta kobratzen genituenean, 25.000 falta zitzaizkien. 400.000 kobratzen genituenean, 25.000 pezeta falta zitzaizkien berriro, eta 800.000 kobratzen genituenean 50.000 falta zitzaizkien. Askok kostatu zaigu Bilbora etortzea, prezio finkoa genuelako eta ez genuen aldatzen. Behin bakarrik etorri gara, baina gure katxe osoa ordaindu digute. Traturik ez onartzeak jaialdiren batzuetara joatea galarazi digu. Hala ere, supermerkatua banao eta bi coca-cola eramaten badituz, bat ordainduko dut bakarrik? Bidezko prezioa dugu, eta kontratatzen gaituen edozein jaialdik berdina ordaintzen du. Antzerkian joera txar asko sortu dira, eta konpainiak arduradunak gara, egoera bakoitzeko emanaldien araberrako katxetak negoziatu baititugu; baita baldintza txarretan joanez, publizitatean agertu gabe, merkatu beltz nefastoa muntatzera bultzatuz, gure aktoreei ordaindu gabe, haien Gizarte Segurantzak kotizatu gabe... Zer gertatzen da ordaintzen ez bada eta istripuren bat gertatzen bada? Zer esango du alkateak? Haren erantzukizuna izango da lan istripua? Ez dakit zer esan dezakeen Gizarte Segurantzako inspektore batek edo Lan Ministeriokoak. Baina ez litzaidake gustatuko kultur teknikariaren edo erakunde ordezkararen larruazalean egotea.

Merkatua aldatu egin da. Ez dugu biran dauden ikuskizunekin soilik lan egiten. Gure diru sarreren %50 antzezpen handietatik lortzen dugu. Hor ere ikasi egin behar izan dugu. Uko egiten diogu proiektu bat aurkezteari gu aldeztetik kontratatu ezean. Guri gertatu izan zaigu proiektu batean denbora luzez lan egiten aritu ondoren, proiektua errefusatzeko. Izan ere, zuk jakin gabe, hiru edo lau enpresari enkargatu diote proiektu bera. Azkenik, bat aukeratzen dute eta besteei esaten diete haien proposamena ez dela atera. Eta ez duzu ezer kobratzen. Fura del Baus konpainiarengandik ikasi genuen: proiektu bat martxan jartzen hasteko, 500.000 pezeta kobratzen dituzte. Guk ez dugu horrenbeste kobratzen, baina 2.000 euro eskatzen ditugu, eta hori ez da hainbesteko; hala ere, programatzaile batek 2.000 euro ipintzen baditu, horrek esan nahi du enkargu serio bat dela, ez doako "brain storming" bat. Seguru nago zuetako askok martxan jarri izan dituzuela gero aurrera egin ez duten proiektuak. Eta adarra jo egin dizutela sentitu duzue. Arrisku hori ez da onartu behar.

•Velam Produccions OE

1. Volantins
2. Management
- 3.- Proiektuak sortzea

Volantinsek aktoreak mobilizatzen ditu eta haiek kalean filmatzea du helburu. Horri esker, badakigu nora jo Xarxa Teatre konpainiak aktore berriak edo ordezkokoak behar dituenen. Volantins estatuan mugitzen da beti. Atzerrira irten izan da inoiz, baina hori ez da gure helburua. Haren egiteko nagusia Xarxarako aktoreak prestatzea da. Garai batean Volantinsen bolo bat saltzeak 25.000 pezeta galtzea ekartzen zuen, baina guk inbertsio ontzat jotzen genuen, hari esker gure aktoreak trebatzen baikenituen. Castingetan izan genuen desilusioaren ondorioz erabaki genuen horrela jokatzeko. Izan ere, casting bat egiten genuenean, antzerki eskoletako jende pilo bat etortzen zen, eta Xarxaren tallerrean oso lan ona egiten zuten, baina gero kalera irtetean, baliabideak falta zituzten. Beraz, 1990eko hamarkadan, Volantins konpainia sortu genuen, eta gaur egun, Xarxan lan egiten duten aktore guztiak Volantinsetik datoz. Volantinsen esperimentatu dute, guk ulertzen dugun moduan ikasi dute arte eszenikoa, zamalanak egiten ikasi dute, baita abenduaren 31n lan egiten ere. Azken batean, Xarxa Teatre konpainiarekin lan egitera pasatzen direnean, konpainiarekiko ardura eskakizuna soilik aldatzen da. Baziren Xarxaren kideak, baina orain, konpainiarekiko ardura urteko edozein egunetan izan daiteke.

Horrez gain, Velam delakoak ezohiko lan bat egiten du: jatorrizko proiektuak sortzen ditu. Jarduera horretako produktuak honako hauek dira: Castelloko Magdalena Circus delakoa, Espainiako konpainiak Nizako inauterietara eramatea, Errege eguneko desfilea antolatzea, eskolako kanpainak muntatzea, jai batzuetako kale animazioa bere gain hartzea... Velam ez doa alkate batengana produktu bat saltzera, baina jaien edo dinamizazio kulturalaren inguruan jarduera berriak eskaintzeko bere esperientziaren premia duten guztiei laguntzen die. Batzuetan, proiektu zehatzak izaten dira; beste batzuetan, zenbait urtetakoak izan dira; eta batzuk indarrean daude oraindik enpresa berriz fundatu zenetik, arestian azaldutako S.Mren sorreraren ostean.

▪ Àgora Teatral

- 1.- Fiestacultura
- 2.- www.teatrodecalle.com
- 3.- Liburuen argitalpena
- 4.- Hitzaldiak, eztabaidak...

Àgora Teatral saski-naskia da, eta haren bidez, diputazio probintzialen eta udaletxeen diru laguntzetara heldu nahi genuen, baina, lehen azaldu dudanez, horren emaitza frustranteak izugarri mugatu gaitu. Àgoraren bitartez Fiestacultura aldizkaria daramagu, eta laster, 29. zenbakia aterako da. Aldizkariak hazkunde jarraitua izan du eta, 1999. urtean martxan jarri zenetik, Espainian eta Europan ematen diren kale ikuskizunei buruzko informazio zabala ematen du. Aitortu beharra dut aldizkaria sortu genuela ez genuelako jasaten Madrilgo, Bartzelonako edo Valenziako informazio zentralismoa. Gure jarduerak isilarazten ziren, nahiz eta Espainiako arte eszenikoetarako lorpen handiak izan. Gure jarduerarik garrantzitsuenak ez dira estatuko komunikabideetan atera: Albertvilleko joko olinpikoetan egin genuen ikuskizun nabarmena; Mantxako kanaleko tunelaren inauguraziokoa; Bogotako zezen-plazako antzezpenak, *ez dago sarrerarik* kartelarekin; Parisen, Erroman, Stockholmen eta abarretan egindako antzezpenak; eta abar. Atzerrian antzezten zuten antzerki konpainiak beti ziren berdinak komunikabide horietarako. Hori dela-eta, komunikabideek alde batera utzitako kale jarduera eszeniko guztia zabaltzera jo genuen. Estatuan gertatzen zen hura guztia, Europan programatzen zena. Eta Europako arte eszenikoei buruzko informazio hura guztia inguruko herri txiki batetik ematea erabaki genuen. Aukera genuen, baita informazioa ere, kontaktu asko genituelako, eta hortik sortu zen Fiestacultura aldizkaria. Esan dezakegu 2000. urtetik serioki tratatzen ari garela kanpoko guneetako errealitate artistikoa. 2000. urtearen aurretik gertatutakoa ia enigma bat zen. Kale antzerkia bazegoen, baina oso zaila zen informazioa lortzea. Horregatik, 1960tik 2000ra bitarteko errealitate eszenikoari buruzko faszikulu bildumagarri batzuk argitaratzea erabaki genuen. Nik konpainiaz konpainia joan behar izan nuen informazio eske, haien errealitatea kontatu ahal izateko. Fiestaculturaren, estatu osoko datuak eta informazioa zabaltzen dugu. Esan

beharra dut laguntza handia jaso dudala Euskaditik. Hain zuzen, Esther Velasco aipatu nahi nuke, Cómicosi, Karrakari, eta abarri buruzko informazio izugarria helarazi baitit. Une honetan ez dago ezer argitaraturik Euskadiko ezta Kataluniako kale antzerkiari buruz. Fiestaculturak bere gain hartu du zabaltze hori, eta onartzen dut antzerki konpainia baten aldizkaria dela, ez dela “fanzine” bat.

Web orri bat ireki dugu, “teatrodecalle.com”, eta web orri horretara bidal dezakezue edozein analisi edo informazio; duela sei hilabete, direktorio bat instalatu genuen. Xarxan dagoen aktore bat hura funtzionamenduan jartzeaz arduratzen da, nahiz eta birek eguneratuta izatea galarazi.

Horrek guztiak –aldizkariak, web orriak, erakusketek, hitzaldiek...– ez du inolako diru laguntzarik jasotzen, Xarxa Teatrek emandako diruaz lortu dugu, baita konpainiako kideak sendotu dituen lagun talde baten interesik gabeko ahaleginaz ere.

▪ Xarxa Teatreren antolamendua

Artifizio hau guztiaren zuzendaritza Leandre Escamillaren eta neronen artean banatuta dago. Gure erabaki guztiak aho batez hartuak dira. Bietako bat ados ez badago, baztertu egiten dugu ideia. Eta guztien adostasun hori kudeaketari eta lan artistikoari ere aplikatzen diegu. Argi eta garbi dugu enpresak hazi behar duela eta, enpresa haz dadin, etekinak egon behar direla urtearen bukaeran. Enpresaren azpiegitura garrantzitsuak eratu ditugu eta, etorkizunari begira, 7000 m²-ko ortu bat erosi dugu, denbora gutxi barru Vila-realeko aisialdirako gunea izango dena. Bertan, Ikea eta ez dakit zenbat gauza gehiago sartuko dira. Kale antzerkiko ekoizpen zentro bat muntatu ahal izango dugu, edo saldu eta diru hori beste lekuren batean berrinbertitu. Eta hori egin ahal izango dugu, erakundeek ez baitigute pezeta bat ere eman. Hori egin ahal izango dugu, lortu ditugun etekinei esker, eta gainerako enpresariak erabiltzen dituzten teknikak erabiltzen ditugulako guk ere. Eraikitzeko lurrak erosteak dirutza itzela balio du; ortuak erostea, ordea, oso merkea da. Ezinezkoa zen gure lokala handitzeko falta zitzaizkigun metroak erostea. 1.200 m²-ko lokala dugu, baina lau egunetan, txiki geratu zitzaigun, eta 3.500 m²-ra handitu nahi dugu. Zer egin genezakeen? Eraikitako leku batera joan ala sei edo zazpi urteren buruan eraikiko zen lurra erosi? Azken hau egin genuen, sei-zazpi urteren buruan

eraikitzea zen bat erosi, eta horretan, kaleko arte sorkuntzarako zentro handi bat eraikitzeke asmoa dugu.

Jarraian, konpainiaren funtzionamenduari buruzko eskema bat gehitu dut. Zoritxarrez, ezin izango dut gu funtzionarazi gaituzten funtzioak eta arrazoiketak azaldu, hurrengo eskemak adierazten duen legez. Eta ezin izango dut egin denborarik ez dagoelako. Jende gehiagok hitz egin behar du, eta moderatzaileak gogorarazi berri dit. Ikus dezagun gain-gainetik hurrengo eskema, eta zerbait argitzerik nahi baduzue itaunen txandan galdetu ahal didazue.

Xarxa Teatreraren egungo egitura:

Zuzendaritza: Leandre LI. Escamilla eta Manuel V. Vilanova

Arte-kreazioa: Leandre Escamilla eta Manuel V. Vilanova

Musika-zuzendaria:	Jaume Gosàlbez
Zuzendari teknikoa:	Ángel Carrasco (Autonomoa)
Grafista:	Carles Abad (Autonomoa)
Eszenografia-eraikuntza:	Joan Ninot (Autonomoa)
Aktore-taldea:	Plantillakoa

Kudeaketa:

Aholkularitza fiskal eta laborala:	Kanpoko
Diruzaintza:	Plantillakoa
Management	Plantillakoa
Jarduerak	Plantillakoa
Komunikabideekiko harremanak.	Kanpoko
Diseinu grafikoa.	Plantillakoa

Hedapena:

Fiestacultura
 Web orrialdeak
 Xarxa Teatre.com
 Volantins.com

Fiestacultura.com

Teatrodecalle.com

Marketin:

Publizitatea:

FC Iragarkiak

Mailing masiboak

Katalogoak

Posterrak

Bideoak/DVD

Publicity:

Prentsa aurrekoak

Ekintzak

Komunikatuak

Hitzaldiak

Liburuak

Onartu beharra dago, antzerkigintza ahalik eta modurik onenean burutzeko, enpresa funtzionamendua beharrezkoa dela eta horrek lanbidean aurrera egiten lagundu digula. Kudeaketa onak arte sorkuntza ona burutzeko esparru atsegina sorrarazten du. Espero dut gure esperientziak eta gure arrazoiketek baliagarriak izan dakizkizuen.